

## AUZO BATZARRA 1/2023

AUZO BATZARRAK 2023ko otsailaren 6an EGINDAKO BILKURAKO AKTA

### .AUZO ALKATEA

Unai Erroitzenea Gamio jn.

### .BATZARKIDEAK

Eider Lasarte Santa Cruz and.  
Olatz Juantorena Aizpurua and.  
Jon Susperregi Altuna jn.  
Ane Lizeaga Parrizas and.

### .IDAZKARIA

Irati Izquierdo Lazkano and.

2023ko otsailaren 6an Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko Auzo Batzarrak bilera egin du Ereñotzuko auzo etxean, arratsaldeko 18:45tan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Unai Erroitzenea Gamio auzo alkatearen lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzarkideak eta neu, Irati Izquierdo Lazkano udal idazkariordearen delegatua.

### 01. Aurreko akta (10/2022.11.23) onartzea

2022ko azaroaren 23an egindako bileraren akta aho batez onartu da.

### 2. Dobera Euskara Elkarteari dirulaguntza zuzena onartzeko proposamena

Elkartearen izena:	Dobera Euskara elkarte
Diru-laguntza kopurua €:	3.000 €
Aurrekontu Partida:	03 01.481.01.334.00 2023
Aurrekontu baimendua:	AD-4/2023

Diru-laguntzaren xedea eta azalpena:

Urumeako Kronikaren zuzen zuzeneko helburua da, herriko eta bailarako herritar guztiei informazio zerbitzua eskaintzea. Herrian eta bailaran bertan gertatzen dena jakiteko, eta alderantziz, herritarrek informazioa eman nahi badute, plataforma bat eskaintzea da helburu nagusia.

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiaren xedea, besteen artean, jardun hauek sustatzea ere bada. Interes orokorrekoa da elkarteari diru-laguntza ematea. Elkartea, irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta xede hori egiten diharduen elkarte bakarra da.

2023ko Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko aurrekontuetan Dobera Euskara elkartearen aldeko diru-laguntza izenduna jasotzen da.

Diru-laguntzen 2017-2019 Plan Estrategikoan jasota dago.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. artikuluan lankidetzak hitzarmenak formalizatzeko irizpideak ezartzen ditu.

Hori horrela,

HONAKOA ERABAKI DA:

- Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eta Dobera euskara elkartearen arteko lankidetzak hitzarmena onartzea.
- 3.000 euroko diru-laguntza onartzea, hitzarmenaren laugarren klausulan xedatutakoa betez.
- Ordainketa, hitzarmenaren laugarren klausulan jasota bezala egingo da: diru-laguntzaren %60 (1.800 €) aurreratuko da erabaki honekin batera, eta gainontzeko %40 (1.200 €) justifikazioa aurkeztean.

### 3. Iturraldeko obrako 09/2022.11.08 aktako Esleipen Proposamena zuzentzea

2022ko urriaren 25ean, Kontratazio Mahaiak GEOTUNEL SLren aldeko esleipen proposamena egin zuen, eskaintza onuragarriena izan zelako.

Hori horrela, Auzo batzarrean honako hau proposatu eta onartu zen 09/2022.11.08 plenoan:

*GEOTUNEL SL-ri (B-95357380) esleitzea Ereñotzuko 32.1 herri bidea konpontzeko obra (Iturralde jatetxera igotzeko bidean izandako luiziaren egonkortzea) kontratua.*

*Prezioa: 100.969,15€ gehi BEZari dagozkion 21.203,52€ guztira **122.172,67€***

Prezioan akats bat zegoen eta Auzo Batzarrak honako zuzenketa hau onartu du:

Prezioa: 98.444,92€ gehi BEZari dagozkion 20.673,43€ guztira **119.118,35€**

**04. Eskariak eta galderak.**

Ez dago eskari eta galderarik.

Beste aztergairik ez dagoenez, bilera 19:00tan bukatu da, eta Unai Erroitzenea Gamio auzo alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, udaleko bitarteko idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut

AUZO ALKATEA

UDAL IDAZKARIORDEAREN DELEGATUA

## DIRU-LAGUNTZA HITZARMENA

### 1. ONURADUNA:

Elkartearen izena: DOBERA EUSKARA ELKARTEA

IFK zenbakia: G-20456653

Helbidea: Hernaniko Larramendi kalea, 11 behea

K/K zenbakia (20 digitu): ES63 2095 5041 14 1061652383

Ordezkarria (izen abizenak eta N.A. zenbakia): Felix Olasagasti Arsuaga 44142470-L

### 2. HITZARMENAREN XEDEA.

Hiru mila euroko diru-laguntza ematea. Zuzeneko diru laguntza moduan, egitasmo hau burutzeko: Urumea kronika

### 3. ZENBATEKOA ETA AURREKONTU KREDITUA.

Zenbatekoa eurotan: 3.000€

Baimendu zenbakia: AD-4/2023

Partida zenbakia (diru-laguntza izenduna): 01.481.01.334.00 2023

### 4. DIRU LAGUNTZA ORDAINTEKO EPEAK ETA MODUAK.

Diru-laguntzaren %60 (1.800 euro) aurrerapen gisa ordainduko da, hitzarmenaren onarpenarekin batera.

Diru-laguntzaren %40 (1.200 euro) justifikazioa aurkeztean ordainduko da, Alkatearen (edo eskuordetza) ebazpen bidez, ondoko puntuan zehazten diren dokumentuak aurkeztean.

### 5. DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA.

- Epea: 2024-01-31
- Diruz lagundutako jardueraren Memoria, ondoko gutxieneko edukiarekin: Proiektuaren azalpena; Diru laguntza zer helburutarako eman den; Egindako jarduerak, ezarritako helburuak eta lortutako emaitzak. Besterik.

3. Egindako jardueren kostua justifikatzeko Balantze ekonomikoa: Diru sarreren eta gastuen balantze laburtua; Egindako gastuen zerrenda sailkatua, kontzeptuen arabera antolatuta eta guztizkoak zehaztuta. Zehaztuta izango ditu, orobat, hartzekoduna, dokumentua, zenbatekoa, jaulkitze data eta, hala badagokio, ordainketa data; Fakturak edo pareko froga balioa duten agiriak; eta, hala badagokio, ordainketaren egiaztagiria; Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru sarrera edo diru laguntza batzuen zerrenda xehatua, zenbatekoa eta jatorria adierazita.
4. Zerga betebeharren ziurtagiriak: Foru Ogasuna (eta Gizarte Segurantza hala badagokio).
5. Hala badagokio, aplikatu ez diren soberakinen itzulketaren eta haietatik etorritako interesen ordainketa gutuna.

## **6. APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE JURIDIKOA.**

---

Diru laguntza hau arautuko du, diru laguntza emateko irizpen honetan ezarritakoak ez ezik, Diru Laguntzen Lege Orokorrean (38/2003 Legea, 2003ko azaroaren 17koa) eta lege horretako araudia onartzeko Errege Dekretuan (887/2006 Errege Dekretua, 2006ko uztailaren 21koa) ezarritakoak, bai eta Udal Diru-laguntzen araudiak.

*Zuzeneko diru-laguntzetarako baldintzak:*

- Aurrekontuetan izendun gisa aurreikusia egotea (887/2006 Errege Dekretua, 65. artikulua).

## **7. ONURADUNAREN AITORPENA.**

---

Onuradunak aitortzen du ez dagokiola Diru Laguntzen Lege Orokorreko 13. artikuluan diru laguntzaren onuradun izateko ezarrita dauden debekuetako bat ere.

Zehatzago esan, erakunde onuradunak egiaztatzen du egunean dagoela zerga betebeharrak (Foru Ogasuna eta Udal Zerga Bilketa) eta Gizarte Segurantzatekikoak betetzeari dagokionez, eta ez duela behartze bidean itzultze prozedurengatik ordaintzeke dagoen diru kopururik. Era berean, aitortzen du ez dagoela sartuta behartze bideko kobrantzako prozeduretan, Udalarekin edo haren erakundeekin egindako zorrak direla eta.

**8. HELBURU BERA DUTEN BESTE DIRU LAGUNTZA, LAGUNTZA, DIRU SARRERA EDO BALIABIDE BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA EDO BATERAEZINTASUNA.**

---

Diru laguntza hau bateragarri izango da edozein administraziok edo erakunde publiko nahiz pribatuk helburu berarekin emandako diru laguntzekin, laguntzekin, diru sarrerekin nahiz baliabideekin. Betiere, aintzat hartu beharko da diru laguntza edo laguntza horiei dagokien arauetan ezarritakoa. Hala ere, *Diru Laguntzen Lege Orokorreko 19.3 artikuluari jarraiki, emandako diru laguntzaren zenbatekoa (bai bakarrik, bai beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo da, inolaz ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izan.*

**9. KONTABILITATE LIBURU ETA ERREGISTROAK, DIRU LAGUNTZA EGOKI JUSTIFIKATZEA BERMATZEKO ETA FINANTZAK KONTROLATZEKO ESKATUAK.**

---

Onuradunak jardueraren gastu eta sarrera guztiak kontabilizatu beharko ditu. Kontabilitate liburuak, erregistro izapidetuak eta gainerako agiriak izan beharko ditu, behar bezala ikuskatuak, aplikatzea zaion merkataritzari eta sektoreari buruzko legedian xedatua den moduan. Justifikatzeko agiriak gorde beharko ditu, egiaztatu eta kontrolatu ahal izateko, lau urtez.

Era berean, laguntza eman beharko die Udal Administrazioiko organoei, eta haiek eskatutako agiri guztiak eskuratu beharko dizkie; berdin jokatu beharko du Europako Batasuneko arauen arabera finantza kontroleko eginkizunak dituzten organoekin ere.

Ereñotzun, 2023ko otsailaren 8an

Ereñotzuko Toki Entitate Txikia

Dobera Euskara elkartzea

UNAI  
ERROITZENEAK  
GAMIO -  
44154555Y

Firmado digitalmente  
por UNAI  
ERROITZENEAK GAMIO  
- 44154555Y  
Fecha: 2023.02.17  
12:05:34 +01'00'

44142470L FELIX OLASAGASTI (R:  
G20456653)k sinatuta, 10/02/2023(a)n,  
Herritar eta Erakundeen CA - CA de  
Ciudadanos y Entidades (4) jaulkitako  
zertifikatu batekin

**DIRULAGUNTZA BIDERATZEKO ESPEDIENTEAN JASOTAKO DOKUMENTUAK:**

---

Elkartearen izena: DOBERA EUSKARA ELKARTEA

IFK zenbakia: G-20456653

Dirulaguntza kopurua: 3.000€

- Dirulaguntza ordaintzeko Alkatearen proposamena.
- Hitzarmen eredia osatua eta sinatua.
- Ogasuneko ziurtagiria.

Ereñotzun , 2023ko otsailaren 8an

Auzo Alkateak